



ZER DIRA ALIANZAK?

Aliantza, bat egitea helburu berbera lortze aldera. Nazio, gobernu edo pertsona multzoa, bat egiten dutenak helburu komun bat egin edo lortzeko, itun, akordio edo hitzarmen baten bitartez¹.

NBEk, 1945ean sortu zenetik, “mundu-aliantza” bat bultzatu du itun bat antolatzeko, zeina garapenaren sustapenari buruzko konpromisoetan oinarrituko baita; izan ere, garapena bultzatzea helburu duten baliabide ekonomikoak bideratzea da konpromiso nagusia. Mundu-aliantzaren kontzeptuak halako bilakaera bat izan du denbora joan ahala. 1945etik 2000ra bitarte, honako hau zen:

¹ RAEren definizioen 1, 2 eta 3 adierak.

“baldintzapeko transferentzia finantzarioak eta laguntza teknikoa ematea garapen-bidean dauden herrialdeei, eta, halaber, lehentasun komertzialak ematea eta tratu berezia eta bereizgarria aitortzea”².

Egia bada ere 2000. urtean onetsitako Milurtekoko Garapen Helburuekin (MGH) batera sumatzen hasi zela kontu ekonomikoetatik harago doan halako mundu-aliantza bat, oraindik ere arlo ekonomikoa zen oraindik ere kezka nagusia. Horregatik, 2002. urtean Garapenerako Finantzazioari buruzko Nazioarteko Konferentzia egin zen, non berpiztu baitzen nazioarteko konpromiso hau: garapenerako beharrezkoak diren baliabide

² *Garapenerako Mundu Aliantza: Egiteke dugun erronka.* Milurtekoko Garapen Helburuen lorpenean izandako desorekari buruzko lantaldea, 2013ko txostena.



ekonomikoak bideratzea **eta Garapenerako Laguntza Ofiziala handitzea (GLO)**. GLO delakoa honela definitzen da: “erakunde ofizialek (estatuko zein tokiko gobernuek, etab.) emandako fluxua, Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) hartzaileen zerrendan dauden herrialdeetara bideratzen dena, haiei garatzen laguntzeko”³. Hartara, **“garrantzi handiko laguntza-tresna bat da, funtsezkoa hezkuntza, osasuna, azpiegitura publikoa eta elikadura-segurtasuna ziurtatzeko”**⁴.

2015etik aurrera, NBEk **Garapen Iraunkorrerako Mundu Aliantza suspertu bat bilatzen du, konpromisoak ekintza bilakatuko dituen, eta “mundu mailako elkartasun handiagoko espiritu bat” hartuko duena oinarri**; halaber, aliantza horrek “mundu mailako parte-hartze intentsu bat (...) erraztu beharko du, gobernuak, sektore pribatua, gizarte zibila eta Nazio Batuen sistema bildurik” bai eta **“komunitate akademikoa, erakunde filantropikoak eta boluntario-taldeak ere”**⁵.

PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

Garapen Iraunkorrerako Mundu Aliantza integratzailea eta inklusiboa izango bada, bai Ipar bai Hego aldean, pertsona guztiek parte hartzeko eta nahi bezala elkartzeko eskubidea

³ **Garapenerako Laguntza Ofizialen Tipologiak**, Garapenerako Lankidetzaren Espainiako Agentzia (AECID).

⁴ **Dok. A/CONF.198/3**, Monterreyko Akordioa, 2002.

⁵ **Dok. A/RES/70/1**, Agenda 2030, 10. or

gauzatzeko aukera izan behar dute, askatasunez eta modu eraginkorrean.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak ezartzen du pertsona orok duela bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea (21. art.), baita bere komunitateko kultura-ekitaldietan eta zientzia-aurrerakuntzan ere (27. art.). Hori horrela izan dadin, **elkartzeko eta biltzeko eskubidea zabal aitortua dago nazioarteko eta nazioko hainbat testutan** (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 20. artikulua eta Espainiako Konstituzioaren 22. artikulua).

Beraz, ez da atzo goizeko kontua ziurtatzea pertsona guztiak izan daitezela mundu aliantza horren parte. Izan ere, 1986an, Nazio Batuen Erakundeak garapenerako eskubideaz egindako Adierazpenaren 1. artikuluan, honako hau aitortu zen: **“gizaki guztiek eta herri guztiek dute eskubidea ekonomia-, gizarte-, kultura- eta politika-garapenean parte hartzeko eta giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak oso-oso-oso gauzatzeko, garapen hori lortzen laguntzeko eta berori gozatzeko”**. 2. artikulua hau eransten du: **“gizakia da garapenaren ardatza eta garapenerako eskubidearen parte-hartzaile aktiboa, eta haren onuraduna behar du izan”**⁶. Hori guztia errealitate bat izan dadin, Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak (17GIH) suspertu egiten du Milurtekoko 8. Garapen

⁶ **DOK/A/RES/41/128**, Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpena.



Helburuarekin (8MGH) 2000tik 2015erako aldirako hartutako konpromisoa, eta Garapen Iraunkorrerako Mundu Aliantza bultzatu nahi du.



KONPROMISOTIK EKINTZARA

Agenda 2030eko zabalena da 17. GIHa. Haren 19 xedeetan mundu-aliantza suspertzeko behar diren jarraibideak zehazten dira, zenbait sektore bilduta:


→ **Finantzak (17.1 eta 17.5 bitarteko xedeak):** Hil edo bizikoa da garapenerako baliabideak handitzea. **2016an, GLBak 142.6 mila milioi dolarreko maila maximoa lortu zuen.** Hartutako konpromisoaren arabera, Ipar aldeko herrialdeek Nazio Produktu Gordinareneko % 0,7% bideratu behar dute GLBra, baina 2016an, herrialde hauek baino ez zuten lortu: Alemania, Danimarka, Luxenburgo, Norvegia, Suedia eta Erresuma Batua.

→ **Teknologia (17.6 eta 17.8 bitarteko xedeak):** Internet oraindik ere ez dago erabilgarri Hego aldeko hainbat eskualdetan. Zehazki, biztanleriaren % 80k erabil dezake Internet Ipar aldean, eta % 40k bakarrik Hego aldean. Arrakala digitala gero eta handiagoa izango da egunez egun Ipar-Hego eta Hego-Hego lankidetzaren areagotzen ez bada.

→ **Gaitasuna sortzea (17.9 xedea),** lortzeko Hego aldeko herrialdeek beraien garapena gauza dezaten.

→ **Merkataritza (17.10 eta 17.12 bitarteko xedeak):** Hegoko herrialdeen esportazioak areagotzea ezinbestekoa da nazioarteko merkataritza-sistema ireki bat sortzeko, diskriminaziorik gabea. Esportazioei dagokienez, Gutxien Aurreratutako Herrialdeen (GAH) parte-hartzea bikoiztea proposatu da. Alabaina, mundu mailako salgai-esportazioetan, haien zeregina murriztu egin zen 2011tik 2015era, % 1.1etik % 0.9ra pasata.

I. grafikoa. Gutxien Aurreratutako Herrialdeen parte-hartzea salgaien eta zerbitzuen esportazioetan, 2001-2015 (portzentajea). Iturria: GIHen txostena 2017, PNUD.



— Salgaien esportazioa — Zerbitzuen esportazioa

→ **Kontu sistemikoak;** koherentzia handiagoa politiketan (17.13tik 17.15era), interesatuen arteko itunak hobetzea (17.16 eta 17.17) eta, azkenik, kontuak eman beharra garapenean egindako aurrerapenak neurtzeko (17.18 eta 17.19). Halere, datu argiak, banakatuak eta fidagarriak lortzeari dagokionez, 17 herrialdek bakarrik (11 Europan eta Ipar Amerikan) dituzte halako datuak eskaintzeko moduko nazio-estatistikako plan guztiz finantzatuak.



NORK ZER EGIN?

NAZIOARTEKO MAILAN



Garapenerako Laguntza Batzordea (GLB), Ekonomiako Lankidetzaren Nazioarteko Erakundearena (ELGE), 29 herrialdek osatuta dago, zeinek Garapenerako Lankidetzako programa bat garatzeko konpromisoa hartu baitute. Programa horietan, ahalegina neurtzeko tresnak daude, baita jarraipena eta eboluzioa egiteko moduko sistema bat ere.

NAZIO MAILAN



Espainiako Lankidetzaren Nazioarteko Erakundearen Espainiako Agentzia (AECID). Harentzat, hauek dira lehenetsi beharreko lurraldeak: 1) Latinoamerika, (2) Afrika iparraldea eta Ekialde Hurbila eta (3) Saharaz hegoaldeko Afrika. Guztira, 37 herrialde eta lurraldetan dago.

TOKI MAILAN



Elkarlaneko coworking-guneak lagungarriak dira gizartean eragitea bilatzen duten tokiko ekintzaileentzat. Ezagutu zer diren Impact HUB delakoak **FABRE -17GIH Testigantzan**.

ETA ZUK, ZER EGIN DEZAKEZU?



"Askoz indartsuagoak gara eskua elkarri luzatzen diogunean eta ez erasoia elkarri egiten diogunean; [...] gure dibertsitatea ospatzen dugunean eta elkarrekin injustiziaren murrerak boteretsuak eraisten ditugunean", Cynthia McKinney

Adin guztietarako!


BAT EGIN ekimen honekin:

#iDeas2030:

Berrikuntza, garapena eta ahalduntzea Ikaskuntza Esanguratsua lortzeko.

Honax FABRE Fundazioaren gonbidapena: bat egin #iDeas2030 nazioarteko aliantzarekin. Espainia, Guatemala, Bolivia eta Boli Kostako 150 haur eta nerabetik gora (Haur Hezkuntzakoak eta Batxilergokoak) tokiko proiektuak garatzen ari dira GIHak gauzatzeko haien komunitateetan eta munduko beste eskola batzuetara zabaltzeko, bide batez Ipar-Hegoa arrakalari aurre eginez.

Nola? 3 urrats baizik ez dira behar:



Eskuratu informazioa! Ez izan zalantzarik, idatziezaguzu epd@fundacionfabre.org helbidera eta ekimenaren parte izan: #iDeas2030: Berrikuntza, garapena eta ahalduntzea Ikaskuntza Esanguratsua lortzeko.

Proiektuaren egilea: FABRE FUNDACIÓN

Laguntzailea: Universidad de Navarra
Instituto de Derechos Humanos

Finantzatzailea: Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra